

## 51. FITXA ARABA - Energia jasagarritasunerako ekintzak bultzatzeko dirulaguntzak - 2024ko deialdia

**Nori zuzendua:** Arabako Lurralde Historikoko 25.000 biztanletik beherako biztanleria duten udalerrak eta kontzejuak.

**Sarbide-esteka:** [Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa - egoitza \(araba.eus\)](http://araba.eus)

**Erreferentziazko araudia:** [Foru Gobernu Kontseiluaren 429/2024 Erabakia, uztailaren 16koa. Onestea energia jasagarritasunerako ekintzak bultzatzeko laguntza lerroaren 2024rako deialdia](#)

**Eremuak:** Energia jasagarritasuna

**Zenbatekoa:** 250.000 €

**Eskabideak aurkezteko epea:** 2024/09/24

### Laburpena

**Jasagarritasun energetikoko ekintzak** bultzatzeko udalerrak eta kontzejuentzako laguntza lerroa onestea da xedea.

### Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Honako jarduketa mota hauek lagundu ahal izango dira diruz, diruz lagundu daitezkeen gehieneko ehuneko eta dirulaguntzaren gehieneko zenbateko hauen arabera:

| Jarduketa mota   | Aurrekontu osoaren banaketa, jarduketa motaren arabera | Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa | Diruz lagundu daitezkeen gehieneko zenbatekoa |
|--|--|--------------------------------------|---|
| 1. mota: Eraikin eta ekipamendu publikoen, ibilgailuen eta argiteria publikoko instalazioen inbentarioak egitea; kontsumoak kontrolatzea; energia auditoretzak, energia eraginkortasunaren ziurtagiriak, energia jarduketaren planak, hiri | 50.000 €   | 6.000 €                              | % 85  |

|   |           |  |      |
|---|-----------|--|------|
| mugikortasuneko planak edo klima aldatetara egokitzeko eta hura arintzeko beste plan batzuk egitea. Hori guztia toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzu publikoei dagokienez.   |           |  |      |
| 2. mota: Monitorizazio ekipoa, ordu programazioa, urruneko kontrola eta antzeko baliabideak ezartzea, erakunde publikoek kontsumitzen duten energia benetako eskarira egokitzeko.   | 5.000 €   | 3.000 €                                      | % 85 |
| 3. mota: Eguzki bidezko argiteria publikoko ekipamendua   | 20.000 €  | 20.000 €                                     | % 60 |
| 4. mota: Lanparak aldatzea, argiteria publikoan eta toki erakundeen eraikinetan energia eraginkortasuna areagotzeko.  | 15.000 €  | 5.000 €                                      | % 60 |
| 5. mota: Baliabide berriztagarrien aprobetxamendurako instalazioak eta ekipamendua (termikoa, fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa,geotermia, minihidraulikoa, aerotermia edo etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk), bai sorkuntza instalazioak, bai haiekin lotutako biltegitratze instalazioak; horiek guztiak toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzu publikoen eskariari erantzuteko. | 110.000 € | 40.000 €                                     | % 60 |
| 6. mota: Bideragarritasun azterlanak eta instalazioen proiektut eknikoak idaztea, eguzki energia termikoa, eguzki energia fotovoltaikoa, minieolikoa, biomasa, geotermia, minihidraulikoa,aerotermia eta etorkizunean gara daitezkeen beste batzuk aprobetxatzeko, baita karga elektrikoko azpiegiturak ere; horiek guztiak toki erakunde onuradunaren titulartasuneko edo prestazioko instalazio, eraikin edo zerbitzu publikoetan erabiltzeko.  | 20.000 €  | 6.000 €                                      | % 60 |
| 7. mota: Ibilgailu elektrikoetarako karga puntuak instalatzea, bai eta bizikletetarakoak ere. Karga puntuak erabilera publikorako izan behar dira edo, bestela, erakunde onuradunaren ibilgailuetarako.   | 20.000 €  | 5.000 €                                      | % 60 |
| 8. mota: Ibilgailu elektrikoak eskuratzea, bai eta bizikleta elektrikoak ere, erakunde publikoen titulartasun eta erabilerarako.  | 10.000 €  | 9.000 € (1.500 € bizikleta elektrikoetarako) | % 30 |

## Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagunduko den jarduera ezingo da hasi **2024ko urtarrilaren 1a** baino lehen.